



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

EUKARISTIA ZENTZUA

6 GAIA GURASOAK PARROKIAN

Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza



1. Helburu nagusia

- Eukaristiaren zentzua eta kristau bizitzan duen garrantzia ulertu.

2. Helburu bereziak:

- "Otorduek" Jesusen bizitzan eta predikuan zein esanahi zuten ezagutu eta Azken Afariaren esanahian sakondu.
- Eukaristia ospatzearen eta "igandea" kristau guztion jaiegun bezala bizitzearen zentzu eta esperientzian sakondu.



Ideia nagusia

- Eukaristiaren benetako esanahia ezagutzearen garrantzia.
- Eukaristia batzar, batasun eta ospakizunerako leku bezala.




Ezinbesteko lagungarriak

- Eranskinen kopiak.

Garrantzitsua da denbora hartzea saioaren jardunbidea ulertzeko eta, aldez aurretik, behar izango dugun guztia prestatzeko.

A. SAIOA GURASOENTZAT PARROKIAN



Saiorako gida

Katekistarentzat ...

Saioa, bost unetan banatuko dugu:

1. unea: Agurra eta aurkezpena. 1-4 urratsak
2. unea: Gaiaren garapena. 5-7 urratsak
3. unea: Bilketa eta laburpena. 8. urratsa
4. unea: Otoitza eta barneratzea. 9. urratsa
5. unea: Familian bizitzeko. 10. urratsa.



1. unea. Agurra eta aurkezpena

Laguntzaileak, bildutakoak agurtu ondoren, aurreko saioan landutako kontu batuk gogora ekarriko ditu. Delako saio horretan penitentzia edo adiskidetzearen sakramentua izan bazen langaia, oraingoan Eukaristiaren sakramentuaren zentzuaz jardungo dugu.





1.1. Otorduen esanahia Jesusen bizitzan eta mezuan



1. urratsa: Hasierako une honetan, irudipenaz baliatuko gara. Gogoratu zuen bizitzetako gertaera garrantzitsuren bat (ezkontza, seme-alabaren baten jaiotza, seme-alaben bataioa...). Gertaera alaia izan dadila (pare bat minutu emango dizkiegu... pentsatzeko).



2. urratsa: Idatzi gogoratutako une horretan izandako sentimendu eta sentrazioak eta orain, gogoratzean, dituzuenak (3 minutu inguru emango diegu pentsatzeko eta post-itak banatuko dizkiegu idazteko).



Galderak gogoeta egiteko:

- Delako gertaera horretan, izan zen otordurik, hau da, bazkari, askari edo afaririk?
- Bildu zinetenok, bizi izandako uneak, pasadizoak..., gogoratu zenituzten?
- Faltan botatzen duzu dagoeneko zuen artean ez den ospakizun hartako norbait? Garrantzitsua da pertsona hori zuretzat? Asko bildu zineten, familian, koadrilan...?

Ondoren, beste urrats bat eman eta Nazareteko Jesusen bizitzan otorduek zer nolako garrantzia duten ikusiko dugu.



3. urratsa: “Levi eta bere adiskideak”, Jesusen jai-otorduak idazkia irakurriko dugu (1. ERANSKINA)

(Dolores Alexandre, Relatos desde la mesa compartida, CCS). Ondoren, galdera hauen haritik, gogoeta egingo da talde handian edo talde txikian.



4. urratsa: Gogoetarako

- Zein esanahi dute otorduek Jesusen bizitza eta mezuan?
- Zer gertatzen da deigarrien bere jarreraren?
- Eta zure esperientzian:
 - Nola eta norekin egiten dugu gure bizitzako “otordua”?
 - Nor esertzen da gure mahaiaren inguruan, gure denboraren, adiskidetasunaren, ondasunen, jakin-minen..., mahaiaren inguruan?
 - Nor uzten dugu kanpoan?



2. unea. Gaiaren garapena: EUKARISTIA

2.1. Azalpenak laguntzailearentzat. Motibazioa

Ebanjelioan aipatzen diren otordu guztien gainetik, bat nabarmentzen da. Senide-otorduen testuinguruan, azken afaria ospatu zuten. Eta afari horretan, Eukaristia sortu zen. Jesusek, Pazko-afaria ikasleekin ospatzean, zentzu berria eman zion Aitari aurkeztutako maitasunezko eskaintza eta guztion salbaziorako bide bezala. Bere bizia emateraino maitatu zituen guztiak eta mundu honetan bere ibilbidea amaitzear zela eta Aitarengana itzultzea zegokiola jakinda, afarian, ikasleei oinak garbitu zizkien eta maitasunaren agindua eman zien. Bere maitasunaren zeinua uzteko eta bere Pazkoan partaide egiteko, Eukaristia sortu zuen bere heriotza eta berpizkundearen oroimen bezala eta bera itzuli arte ospatzeko agindu zien apostoluei.

Jainkoak ituna egin zuen bere herriarekin Egiptoarrengandik askatu ondoren. Jesusek itun berria egin zuen bere gorputza eta odola emanez. Jesusek bere burua eta bizitza osoa ematen ditu itun berriaren testuinguruan.



5. Urratsa:
Ebanjelioko bi pasarteok entzungo ditugu (2. ERANSKINA)



Mt 26, 26-30



Eg 2, 44-46

Eta ondorengo puntuok azpimarratuko ditugu. Azalpen laburra

- Jesusek, hil zuten egunaren bezperan ikasleekin ospatu zuen afarian, giro berezia sortzen du; adiskideekin bizi du agurtzeko unea; badaki azken afaria dena. Ez da berriz eseriko bere adiskideekin Aitarekin batera ospatuko den azken jai-otordura arte. Hori dela-eta, bere bizitza zer izan den grabatuta utzi nahi die: Jainkoaren aldeko irrika eta guztien aldeko eskaintza osoa.
- Ogia eta ardoa banatzean, haxe esaten die: "Haxe naiz; bizitza oso-oso emango dizuet".
- Beraz, Eukaristia ospatzea, Jesus honen oroitzapena egitea da, Jesus hori eta bere baldintzarik gabeko maitasuna geure bihotzean hartzea.



6. urratsa: Gogoetarako eta talde-lanerako galderak:

- Zure ustez, zer da deigarriena hasierako kristauen lekukotasunean?
- Ba ote du antzekotasunik zure esperientziarekin?
- Zein esperientzia duzu Eukaristiaz?
 - Familia Eukaristietan parte hartzen duzu
 - Elkartearen Eukaristian parte hartzen duzu



7. urratsa:

Talde-lanaren ostean, hirugarren galderari emandako erantzunak batera jar ditzatela. Erantzunok kartulina/kartelean jasoko ditugu (hurrengo saioan erabiltzeko).



3. unea. Bilketa eta laburpena

"Eukaristia garaien azkeneraino ospatzen jarraitzeko eskatzen die Jesusek bere ikasleei: *"Egizue hau nire oroigarri"* (Lk 22, 19)

Elizak Jesusen mandatua bete eta kristauak Eukaristian biltzen dira Jesusen heriotza eta biztuera ospatzeko bera itzuli arte.

Laburpen erara: Eukaristia ospatzean:

- Anai-arreben elkarte bezala biltzen gara
- Jainkoaren Hitza hots egiten dugu
- Jesusen Heriotza eta Berpizkundea gogora ekartzen ditugu
- Bizia janaria jasotzen dugu
- Erreinuko jaia aurreratzen dugu



8. Urratsa. Pentsatzeko...

Pare bat minutuko isilunea egingo dugu, pentsatzeko:

- Ikasi duzue zerbait Eukaristiaren zentzuaz?

4. Unea. Otoitza eta barneratzea



9. Urratsa: Topaketa amaitzeko, taldean otoitz egiten amaitu dugu. Ain Karenen "Hambre y sed de ti" abestia entzun dugu (3. ERANSKINA)

**Entzuteko,
klik egiteko irudian**



ELKAR OTOITZ EGITEKO¹

Jesus, zein garrantzitsua zen zuretzat
zure jarraitzaileekin mahaiaren inguruan biltzea!
Zu ezagutu eta zure jarraitzaile izan nahi dugunok
senti dezagula zein premiazkoa dugun
Eukaristiaren mahaiaren inguruan elkartzea.
Zure Hitzak gida dezala gure bizitza,
banatutako zure ogi eta ardoa
bizigarri izan ditzagula gure ibilian
eta elkartean bat eginik gure artean zaudela
eta zure atzetik jarraitzeko dei egiten diguzula
senti dezagula.

5. unea. Familian bizitzeko



10. urratsa. Aste honetan, zaindu familia batzarrak; hartu-emanerako, komunikaziorako, jai egiteko, elkarrekin hazteko..., eremu izan daitezela. Banatu, batera jarritz gero, seme-alabek Eukaristiaren esanahia ulertu egingo dute eta bertan parte hartzeko nahia biztuko zaie. Gainera, berezitat hartuko dute, Jesusen adiskide bezala haren familiako kide sentituz eta gure artean den Jainkoaren presentzia eskertuz.

- Mahaikideen arteko hartu-emana sustatu, guztien partaidetza erginez eta bizipenak batera jarritz.
- Otorduen hasieran, mahaia bedeinkatu. Jainkoa familiaren batzar eta jai horretan agertu egiten dela adierazteko era da.



♦.....

¹ 3. mailako GIDALIBURUTIK aterata (parrokia-familia katekesia 3.maila, 4 gaia: Jesusek bere mahaira gonbidatzen gaitu)

I.Eranskina "LEVI ETA BERE ADISKIDEAK" ²

Zerga-biltzaile bezala lan egiten hasi nintzenean, lotsa-lotsa eginda nengoen eta ordura arte adiskide izan nituenekiko hartu-emanak saihestu egiten nuen. Beren gaitzespen eta kritikak sumatzen nituen eta iraingarria zen niretzat beraiek nirekin ez egoteko eginahalak egiten zituztela ikusteak; baina, irabazten ari nintzen dirutzarekin alderatuz, haien jarrerak axola gutxi zuela esaten nion neure buruari.

Garai hartan, nire antzeko egoerak bizi zituen Levi zerga-biltzailearen adiskide egin nintzen; elkarrekin, ardo-pitxerra aurrean genuela, plantak egiten genituen, inguruan sentitzen genuen hutsunea barregarritzat hartzen genuela agertu nahirik, baina gure isekak ez zuten ez gure samintasuna ezkutatzeko ezta ematen ziguten tratua hark nola zauritzen gintuen disimulatzen ere.

Aspaldi ikusi gabe nuen Levi eta egun batean bila etorri zitzaidan, aztoraturik eta hunkiturik, Nazareteko Jesus deitutako batekin izandako topaketa arnasestuka kontatzeko:

"Ezagutzeaz batera ikusi nuen ez zuela zerikusirik beste inorekin, desberdina zela, berak ez zuela aintzakotzat hartzen gure artean sailkapen eta banaketak sortzen duen inongo bereizkeriarik. Argi ikusi nuen hori, mahaiaren inguruan guztiak esertzen zela ikustean: emakume eta gizonekin, aske eta esklaboekin, kargu handiak zituen jendearekin eta guztiak txikiagotzat dituztenekin, gure herriaren arabera ohikuneen arabera garbi zirenekin eta gu bezalako lohiak, begirunea diotenekin eta gosetiekin.

Atzo, beti bezala, nire mahaiaren atzean jarrita nengoela, ordaintzeko zain ilaran zeuden zerrenda eskuetan nuela, burua altxatu eta txanda zuenari jaramon egitera nindoala, bera zegoen aurrean niri begira. Ezin dizut azaldu zer sentitu nuen, bere agerpen hutsak hesi guztiak desegin eta tarte guztiak ezabatu egin zituela iruditzen zitzaidan... Kolaboratzaile eta esplotatzaileak jo eta gaitzespen-sorta jaurtiko zidala uste nuen, baina, horren ordez, hauxe entzun nuen harrituta: -Levi, behar zaitut, etorriko zinateke nirekin?

Berarekin joan! Konturatzen zara nolako erokeria den? Nahasita nagoela esango didazu, eta seguruenik horrela izango da, baina, mesedez, zatoz nirekin hura ezagutzera; gauean bere afaria emango dut bere ohorez, nire negozioa likidatu eta bere atzetik joan aurretik".

Afari ahazteazina

Guztiz txundituta, Leviren adiskide guztiok, hau da, Jerusalemeko jendilajea, bildu gintuen afari hartara joan nintzen. Han ginen zerga-biltzaileak, prostitutak, erromatar soldaduak, era guztietako merkatariak, diru-trukatzaileak, trafikariak..., eta bat baino gehiago, mozkor-mozkor eginda afariari ekin aurretik.

Levik ondo hornitutako sototik ateratako ardo bikainaren laguntzarekin gero eta nabarmenagoa zen giro alaiak Jesus bera ere kutsatu egin zuen. Baina ardo hark baino askoz gehiago liluratzen gintuen zerbait sentitzen genuen mahaikideok: Jesusen inguruan geundela, ez genuen gure "pertsonekin" zama sentitzen, mailakatze sozial, erlijioso eta ekonomiko guztitik aske sumatzen genuen geure burua, araztasun- edo lege-arau guztitik

aske... Mahaiaren inguruan bildutako elkarte gure arteko hesi guztiak apurtzeko gauza zela sinisten zuela ematen zuen eta bere uste sendo hori guztiz kutsagarri zen eta guztiok ikusten genuen, guzti hura gertaera garrantzitsuren baten hastapen zena.

Bazkalondoan, istorio hau kontatu zien: gizon batek ehun ardi zituen; gauean, eguraldi ekaiztsua zegoela, arditegira sartu aurretik zenbaketa egitean, bat galdu egin zitzaiola konturatu zen. Egundoko euri-jasa bazen ere, mendira joan zen ardiaren bila eta ibilaldi luzea egin behar izan zuen aurkitu aurretik. Goizaldea gertu zela, beeka egiten ari zela entzun zuen; ardia amildegian behera jausi zen, sasi artean korapilatu eta atera ezinik geratu. Gizona arineketan jaitsi zen, lepoan hartu eta poz-pezik etxera itzuli zen eta bidean deialdia egin zuen auzotarren artean ospatzera joan zitezen. "Zoriondu nazazue", esan zien, "aurkitu egin dut galdutako ardia!".

Kontaketa amaitzean, ondorio hau atera zuen: - Horrelakoa da Jainkoa, zuen Aita, eta horrela pozten da galdutako seme edo alabaren bat aurkitzen duenean.

Denboraldi batez errabino baten ikasle izan zela-eta istorioaren berri zuen mahaikideetako batek hauxe gogoratu zion: - Ez duzu esan galdutako ardia artaldeko onena zela eta horregatik zela artzainaren kutuna.

Jesusek erantzun zion: - Ez, Jainkoarekin ez da horrelakorik gertatzen. Jainkoarentzat merituek ez dute zerikusirik hau, bestea baino gehiago maitatzeko. Jainkoaren maitasuna, amaren maitasuna bezalakoa da: amak, seme-alaba guztien artean, txikiena du kutunena hazi arte, gaixoa, sendatu arte, bidaiaria, etxera bueltatu arte.

Ordura arte, inoiz ez genion entzun horrelako argudiorik, are gehiago, sinagogetan eta horrelako lekuetan, kontrako gauzak entzuten genituen, esate baterako, Jainkoak gogoko dituela zuzenak eta gaitzetsi bekatariak. Bizitza, legeak, usadioak, Jainkoarekiko hartu-emanak eta gure herriaren etorkizuna ulertzeko beste era baten aurrean gaudela konturatu ginen. Oso azkar aldatzen ari zen dena, eta kiribilaren erdigunea, geure burua galdutzat genuen eta norbaitek aurkitu egin gintuela konturatu ginen pertsonez osotutako mahai hura zen.

II. Eranskina: EBANJELIOKO TXATALAK

Mateo 26,26-29

Afaltzen ari zirela, ogia hartu zuen Jesusek eta, bedeinkazioa esan ondoren, zatitu eta ikasleei eman zien, esanez:

- Hartzazue eta jan, hau nire gorputza da.

Gero, kopa hartu eta, esker oneko otoitza egin ondoren, eman egin zien, esanez:

- Edan guztiok honetatik, hau nire odola baita, Jainkoarekiko ituna berrituko duena, bekatuak barkatzeko guztien alde isuria. Egia esan, hemendik aurrera ez dut gehiago ardorik edango, neure Aitaren erreinuan zuekin ardo berria edan arte.

Apostoluen Eginak (2, 44-46)

«Fededun guztiak elkarturik bizi ziren, eta dena denentzat zeukaten: beren lur eta ondasunak saldurik, guztien artean banatzen zuten dirua, nork zer behar zuen. Egunero bildu ohi ziren tenpluan, baina ogia etxeetan zatitzen zuten, otorduak elkarrekin pozik eta bihotz xaloz eginez»

III. ERANSKINA ABESTIA: "Hambre y sed de Ti.

Eukaristian bere burua ematen eta oparitzen digun Jesus begietsiz, Bere, bere Janariaren, bere Biziaren nahia senti dezakegu.

Oinazetan den gure munduari begiratzeak ere eragiten du egarri lazgarri hori. Jauna, Zeuk bakarrik ase dezakezu gure Justizia eta Maitasun gose eta egarria

EMAIGUZU ZURE OGITIK, EMAIGUZU ZURE ARDOTIK.

HAMBRE Y SED DE TI

C/1

Introducción: La - Mi - Fa# - Re - Mi - La - Mi - Fa# - Re - Mi - Re - Mi - Fa# - Re - Mi - La

La Mi Fa# Re La
Dame de tu Pan, de tu Cuerpo compartido
La Mi Fa# Re Mi
dame a beber de tu Sangre vertida en amor
Re Mi Fa# Re Mi Fa#
y hazme una en ti, párteme contigo
Re Mi
repárteme entre quienes tienen hambre y sed
Re Mi Fa# Re Mi Fa#
Hazme una en ti, párteme contigo
Re Mi La
repárteme entre quienes tienen hambre y sed de ti

Re Mi Fa# Mi Fa#
Tengo hambre de ti, siento sed de tu justicia,
Re La
ante el dolor de mi pueblo,
Re La
ante el llanto de mi gente
Re Mi
ante el temor a la muerte
Re (2ª vez La)
tengo sed, tengo sed de ti

air Karam